

# EGUZKI-LABEA

Kaixo guztioi gu Uxue eta Nahia gara eta gaur nola egin eguzki labe bat erakutsiko dizuegu. Lehenengo ze materialak behar ditugun aipatuko ditugu eta gero nola egiten da.

## MATERIALAK:

- zapata kaxa bat
- Film papera
- Aluminiozko papera
- zinta islatzailea
- Kartoi mehe beltza, kutxaren tamainekoa
- Guraizak

## PAUSOZ-PAUSO NOLA EGIN

1. Lehenengo material guztiak ditugunean kutxaren tapa moztuko dugu baina ez guztia, bakarrik alde bat utziko dugu moztu gabe.
2. Tapa moztuta daukagunean, film papera jarriko dugu moztu dugun zatian, zuloa gelditzen den tokian, guk kanpotik jarri dugu, baina nahi duzuen moduan jar dezakezue.
3. Tapan aluminiozko papera jarri behar dugu kutxaren barrurantz ematen duen aldean, ez da beharrezkoa kutxatik kanpo ematen duen zatia jartzea, garrantzitsuena barrurakoan jartzea da.
4. Kaxa barruan aluminiozko paperarekin estali behar dugu, garrantzitsua da dena ondo estalita geratzea.
5. Dena ondo daukagunean, kartoi mehea aluminiozko paperaren gainean jartzea besterik ez zaigu geratzen, eta gure eguzki-labeak eduki dezala!

## NOLA ERABILTZEN DA

- Eguzkia behar dugu, egun eguzkitsu bat behar dugu.
- Gero, eguzkitan jarri eta kutxa ireki eta sukaldatu nahi duguna sartuko dugu.
- Janaria sartuta aurkitzen dugunean, moztu dugun estalkia igo behar dugu, eta gero kutxa itxita utzi.
- kutxa ezin dugu ireki sartu dugun janaria egina ikusten dugun arte, irekitzen badugu ez da ongi egingo

Eta hau izan da egin dugun proiektua Fisika eta Kimika Irati Iturriekin; Espero dugu zuek baita probatzea eta naturan egitea zuen janaria!!!

Askatasuna 2.A  
Uxue eta Nahia